

EGUNEROKOA



EUSKARA ETA LITERATURA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren maila

Mari Eli Ituarte

Irakasgaiak: Euskara eta Literatura / Gaztelania eta Literatura/ Plastika eta Ikus-Hezkuntza

Gaia: Narrazio testuak: egunerokoa

Maila: DBHko 2. maila

Saio kopurua: 6-7

Proposamenaren testuingurua:

Bizi garen mundu honetan oso ohikoa da kontakizunak garatzea. Oso ohikoa da, baita, norbere kezak, sentimenduak, ezinegonak, beldurrak... eguneroko baten bidez islatzea. Hori horrela, eguneroko literario bat ardatz hartuta (*Zer da, ba, maitasuna?* Miren Agur Meabe. ELKAR argitaletxea), ikasle bakoitza berea idazten hastea da helburua. Narrazioen barne-egitura eta baliabide orokorrez gain, egunerokoak bereizgarriak eta propioak dituenak barnera ditzan, beti ere sorkuntza bultzatuz. Ez ahaztu zabalkundea ere izan dezakeela: blog baten bidez, esaterako...

Landuko diren oinarritzko gaitasunak:

Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna: jarduera guztietan

Teknologia digitala eta IKTak erabiltzeko gaitasuna: 3., 5. eta 6. jarduera

Giza eta Arte kulturarako gaitasuna: 3., 5. eta 6. jarduera

Gizarterako eta Herritartasunerako gaitasuna: jarduera guztietan

Ikasten ikasteko gaitasuna: 1., 2., 5. jarduera

Norberaren ekimenerako eta autonomiarako gaitasuna: 7. jarduera

Helburu didaktikoak:

- *Norbere egunerokoa idazten hastea.
- *Narrazio bat modu ulerkorrean irakurtzea eta haren gaiak jabetzea.
- *Lehenengo pertsona kontakitako narrazioen ezaugarriak ezagutzea.
- *IKTak eta testu-prozesadoreak informazioa aurkitzeko erabiltzea.
- *Pintore batzuei buruzko datuak bilatzea. Beraien pintura jakin bati buruz hausnartzea.
- *Definizioen hurrenkera eta ezaugarriak aztertzea.
- *Zereginak gauzatzerakoan autonomia handitzen joatea.
- *Zereginak gauzatzerakoan ekoizpenen zuzentasuna eta alde estetikoak zaintzearen garrantziaz ohartaraztea.
- *Literaturara plazer ekintza bezala hurreratzeko zaletasuna garatzea.

Edukiak:

- *IKT eta testu prozesadoreen erabilera.
- *Picasso, Chagal eta Frida Khalori buruzko informazio idatzia eta pintura jakin batzuen azterketa.
- *Maitasuna ardatz duten testuen irakurketa eta hizkuntza baliabide bereizgarrien gaineko hausnarketa.
- *Literatura-asmoko testuak sortzeko prozedura
- *Lehen pertsona kontakitako literatura-narrazioen ezaugarriak.

*Definizioak: egitura.

*Testu baten zuzentasunari eusteko baliabideak.

*Literatura-asmoko testu jakin batean ekoizpenean hizkuntzaren edertasunaren balioespena.

*Testu idatziak berrikustearen garrantzia: egokitzapena, koherentzia eta zuzentasuna.

* jarrera kritikoa literatura-testuen balio esplizituei dagokienez.

Jardueren sekuentzia*:

a) Planifikatzea:

1. **jarduera:** Zer da eguneroko bat? Narrazioa da? Literatura da?

b) Gauzatzea:

2. **jarduera:** Ezaugarriak aztertzen!

3. **jarduera:** Maitasuna ote?

4. **jarduera:** Mister X eta Berezi

5. **jarduera:** Pintura eta poesia uztartzen

6. **jarduera:** Zer da, ba, maitasuna?

c) Erabiltzea

7. **jarduera:** Nire egunerokoa

Ebaluazioa:

Adierazleak:

*Ea testuaren generoa, gaia eta egilearen komunikazio-asmoa bereizten dituen.

*Ea bilatzaileak behar bezala erabiltzen dituen informazioa aurkitzeko.

*Ea informazio garrantzitsua bilatzen eta hautatzen duen, hainbat iturri erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.

*Ea hautatutako generoan bereziki erabiltzen diren erretorikaren eta estiloaren zenbait egitura eta prozedura identifikatu eta erabiltzen dituen.

*Ea literatura-asmoko testuak sortzeko unean bizi izan dituen ideiak eta esperientziak erabiltzen dituen.

*Ea transmititu nahi duen edukirako egokiak diren adierazpen-baliabideak erabiltzen dituen.

*Ea gogotsu parte hartzen duen elkarrekiko lankidetzan eta ikaskuntzan.

*Ea nahiko ongi aplikatzen dituen elkarrekintzarako arauak: arretaz entzutea, txanda itxarotea, errespetuz parte hartzea, solaskideak esandakoaren arabera hitz egitea eta gizalegezko arau batzuk betetzea.

*Ea zereginak planifikatzerakoan eta burutzerakoan behar besteko autonomia duen.

*Ea zereginak gauzatzerakoan zuzentasuna eta alde estetikoak ere zaintzen dituen.

Tresnak:

Jardueren sekuentzian proposatuko direnak. Behaketa orriak.

Eranskina

Sekuentzia didaktiko hau garatzeko abiapuntu aukeratu den liburuari buruzko iradokizunak: oso aproposa da 13-14 urteko gaztetxoentzat eta baita nagusiagoentzat ere. Narrazio liburua izateaz gain (egunerokoa) badu berezitasunik: liburua bi pertsonen egunerokoek osatzen dute, protagonisten egunerokoek, alegia. Bereziarena irakurri ostean, liburuari buelta eman eta Mister X-rena irakurriko dugu. Amodioa da gai nagusia eta protagonistetako bakoitzak bere ikuspuntutik kontatzen du gertaera bera.

Horrez gain, Miren Agur Meabe poeta bikaina da eta eguneroko zati bakoitzari olerki bana gehitu die. Olerki horiek, zenbaitetan, pintore ospetsu batzuek lanekin lotzen dira.

Beraz, benetako altxorra.

1. JARDUERA. Zer da eguneroko bat?

Ba al dakizue zer den eguneroko bat?

Bizi garen mundu honetan oso ohikoa da kontakizunak garatzea. Oso ohikoa da, baita, norbere kezak, sentimenduak, egonezinak, beldurrak... **eguneroko** batean islatzea. Hori horrela, eguneroko literario bat ardatz hartuta, (*Zer da, ba, maitasuna?* Miren Agur Meabe, ELKAR argitaletxea) eta bertako zein beste zenbait liburutatik hartutako pasarteak irakurri eta landuta abiatuko gara lanean.

Ezagutzen duzue horrelakorik? norbere bizitzan oinarrituta kontatzen direnik? Zinean, telebistan... badago horren antzekorik?

- ❖ Taldeka bilduta, saiatu eguneroko kontakizunetan oinarrituta dauden film edo liburuak aukeratzen. Azpian dituzue adibide batzuk. Bakoitzak ikusi edo irakurri duen bat aukeratu eta besteei kontatu diezaiela, ahoz.



Zer egingo duzue sekuentzia honetan?

Bukaeran zer egingo duzuen zehatu ahal izateko jarduera duzue lehenbiziko hau.

- ❖ Taldeka bilduko zarete helburuak zehazteko: Zer egingo duzue? Nola? Zertarako?
- Gure proposamena koadro honetan ikusten duzue. Zerbait falta edo sobran dagoela iruditzen bazaizue orain da momentua egokitzeko:

Zer egingo dugu?	Zertarako egingo dugu?	Zer ikasiko dugu egiten?
• Egunerokoa idatziko dugu. • buruzko testuak irakurriko ditugu. • egingo ditugu azalpena emateko • marraztuko ditugu • Ikuspuntu desberdinei erreparatu eta elkarlanean adostasun batera iristen ikasiko dugu. • ... • ... • Taldekideen iritziak kontuan izango ditugu.	• • • • • •(azalpenak) ematen ikasteko • Guk zer ikasi eta zer egin dugun azaltzeko. • Gure lana aurrera ateratzeko • ... • ... • ... • ...	• . • • • • • Elkarrekin lanean aritzen: adostasun batera iristen... • Azalpenak ematen. • Lankidetzaren harremana hobetzen.

ADOS?

Unitatean lan batzuk taldeka egingo badituzue ere, oraingoa norberak bakarrik egitekoa da. Irakurri arretaz eta galdetu zeure buruari:

- ✓ Gogokoa duzu egingo dugun lana?
- ✓ Zure ustez, zer ikasiko duzu?
- ✓ Zuk daukazun gaitasun eta trebetasunetatik zeintzuk dira erabiliko dituzunak?
- ✓ Non ikusten duzu zailtasuna: lanean, harremanetan ... ?

..

2. JARDUERA. Ezaugarriak aztertzen

Egunerokoa, izatez, biografiaren azpigeneroa da, eta gehiago zehaztuta, autobiografiarekin pareka daiteke.

Hasieran, orri zuriek osatzen duten koaderno edo liburu bat baino ez da. Egunerokoak — edo egunkariak — mota askotakoak izan daitezke. Eguneroko betebeharrak apuntatzeko erabiltzen direnak **agenda** izenez ezagutzen dira. Norbere pentsamenduak, kezkak, desioak... idazteko ere erabiltzen dira, ordea: **eguneroko pertsonalak** dira horiek. Sarritan, literatur maila lortu izan dute horietako askok.

Eguneroko pertsonal batean egunean zehar gertatu zaizkigun gorabeherak aipatzen ditugu, zer sentitu dugun une jakin batean, nola sentitzen garen.... Barneko kontuei buruzkoa izaten denez, lagunarteko hizkuntza izaten da nagusi. Eta, bakoitzak bere kontuei buruz jarduten duenez, lehen pertsonan kontatu ohi dira.

- ❖ Ondoren, hainbat testu atal dituzue. Horietako gehienak liburuetatik atera ditugu, eguneroko pertsonalak izateaz gain, literarioak ere badira. Baina ez guztiak. Binaka, irakurri itzazue arretaz eta aukeratu zein diren eguneroko pertsonalak eta zein ez.

A)

Ekainak 20, larunbata

Bert laster etxeratzea espero dut. Aita kokoteraino dago Sabrerekin eta amona mototseraino gure txakurrarekin.

Erretzeari uzteko esan dio espezialistak Berti, baina laurogeita bederatzi urterekin ez duela merezi esaten du Bertek. Hoge Woodbines eta poxpolu-kaxa bat erosteko eskatu dit. Zer egingo ote dut?

B)

Urtarrilak 7

Kaka zaharra! Bi egun besterik ez dira falta eskolara itzultzeko. Ze azkar amaitu diren opor egunak! Hala ere, berriro Mariarekin egoteko aukera izango dut, eta gaitz erdi. Dena dela, dexenteko kopeta du Mariak: ez dit kasurik egin eskiatzera joan zenetik. Ongi ibiliko da, itxura dagoenez, ez baita gogoratu ere egin agindu zidan postala idaztea.

C)

1992. martxoaren 1ean, Bosnia-Herzegovinako eta Montenegroko herritar gehienek independentziaren alde agertu ziren erreferendumean. Handik hilabetera gerra hasi zen.

D)

Ehun metroko lasterketa-probak egin ditugu. Lurruna ere ateratzen zitzaigun ahotik, herensugeen pare, neskek titi-puntak marka-marka eginda baitzituzten kamiseten azpian. Dutxatu eta gero, kontu-kontari egon gara Konpai eta biok, neskak noiz aterako, ozono-geruza dela, poloetatik askatzen ari diren izotz-trokoak direla...

E)

2009ko urtarrilaren 12a, astelehena

Goizeko 8etan analisiak osasun etxean (baraurik!)

11etan, batzarra euskara mintegikoekin.

12:30etik 13:25era DBH 2. mailakoekin saioa.

13:30etik 14:25era DHB 3 mailakoekin saioa.

Bazkaria amarekin. (Deitu gogorazteko)

Arratsaldeko 5etan umeak hartu eskolan eta musika eskolara eraman.

8etan auzokoen batzarra. Ahaztu barik eraman Iberdrolako agiriak.

F)

Baselizak kanposantu txiki bat du inguruan. Hementxe nago, ilbeteari argazkiak egiten. Ez didate beldurrik ematen kanposantuek: paisaia naturala dira niretzat ama hil zitzaidanetik.

Sarritan joaten naiz amaren hilobira. Musu ematen diot haren izenari, marmolean; euriak horituriko liken horixkak karrakatzen ditut lixa-paperez; edo zerbait irakurtzen dut panteoiaren ertz batean jesarrita. Itsasoa ikusten da bertatik, eta itsasoak heriotza gogorazten dit; eta bizitza, aldi berean.

G)

LILURA

Ahotsik gabe hitz egiten badidazu,

hatzik barik ukitzen banauzu,

nola ez dut, ba, dardar egingo?

Oihal mehetxoan pintaturiko paisaiak

zer egiten du, ba, haizetan?

Testuak	A	B	C	D	E	F	G
Eguneroko pertsonala							
Bestelako egunerokoa							

- ❖ Oraingoan, behaketarekin jarraitu eta aztertzen ari garen narrazio mota berezi honetan, eguneroko pertsonal bezala izendatu ditugunei erreparatu eta ohikoak diren ezaugarriak antzematea da proposatzen dizueguna. Horretarako, bete txantiloia hau.

EGUNEROKOAK	BAI	EZ
Testuaren helburua informazioa ahalik eta zehatzen eskaintzea da		
3. pertsonan idatzita daude		
Ez da iritzi pertsonalik agertzen		
Aditz denbora nagusia lehen aldia da		
Testu objektiboak dira		
Testuan igorlearen aipamenak egiten dira gehienetan		
Lexiko teknikoa eta goi mailakoa ageri da		
Helburu nagusia informazioa helaraztea da		

- ❖ Txantiloia bete ondoren, komentatu zure taldekideekin eta ondorioak atera guztion artean.

EGUNEROKOA da...

- ❖ Gehiago zehaztuko dugu zuek emandako definizioa. Bila ezazue binaka, jarduera honetan emandako testu guztien artean zuen ustez literatur kutsu handiena duena. Zein da? Bat bakarra dago? Zeri erreparatu diozue hori/ horiek aukeratzeko? Ados zaudete guztiok? Binaka, eman zuen arrazoiak bizpahiru lerrotan.

--

3. JARDUERA. Zer da, ba, maitasuna?

Egunerokoen artean, intimoenak direnak, barneko kontuen berri ematen digutenak, desio ezkutak plazaratzen dituztenak, maitasun kontuak aireratzen dituztenak... hartuko ditugu hizpide. Horretarako, duela gutxi argitara emandako liburu batetik hartutako testuak proposatzen dizkizuegu: *Zer da, ba, maitasuna?* Miren Agur Meabe (Elkar, 2008).

Liburu honetako protagonistak zuen adin inguruko neska bat eta mutil bat dira: Mister X eta Berezi. Jakina, horiek ez dira beraien benetako izenak, baina egunerokoak ezkutukoak, sekretuak, izan ohi direnez, horrelaxe bataiatu dute elkar. Maiteminduta daude, baina ez dute elkarren sentimenduen berri argirik. Hala ere, maitasuna zer den eta zer ez den definitzen dute sarritan beren egunerokoan.

Liburuan zehar agertzen diren definizio horiek dituzue jarraian. Bide batez, ez dago gaizki definizio bat zertan datzan gogoraztea:

DEFINIZIO An hitz baten esanahia edo zerbaiten izaera zehaztasunez azaltzen da. Definizioaren enuntziatuak bi zati nagusi ditu, hau da, **hurbileko euskarria** eta ezberdintasuna; beste modu batean esanda, lehendik dakiguna eta **ezaugarri berria**. Esaldi barruan betetzen duten tokiak ere badu garrantzia: lehenbizi, **ezaguna dena** jarri behar da eta **ondoren, ezaugarri berriak**. Horri, hurrenkera edo esaldi barruko ordena logikoa deitzen zaio.

Adibidez:

Gorrotoa da atsegin ez duzun beste norbaiten edo zerbaiten kontrako sentimendua. Sinonimoak: herra, aiherkunde.

- ❖ Irakurri itzazu arretaz Berezik eta Mister X-k maitasunari buruz ematen dituzten definizioak. Jarraian, bete azpian duzuen txantiloia

Zer da, ba, maitasuna?

- A) Maitasuna da zereko zera zertzen duzunean zertzen duzun zer hori.
- B) Maitemina, tuntun-mina.
- C) Batzuetan erridikulua pixka bat egitea, ezta?
- D) Biren artean ore bat egin, eta konpainia onean jatea, egunez gatzez, gauez azukrez, ezta?
- E) Edonon, edonoiz, edonola edo edozertan zaudela, tenk egiten dizun eremu magnetiko batean preso sentitzea, ezta?
- F) Maitemina, elkarmina, ezta?
- G) Bitsezko katebegiz lotzea, ezta?
- H) Norberaren baitan beste izen bat, beste izate bat bizirik sumatzea; eta, batera, beste izen horrek, beste izate horrek, bere baitan, zeu sumatzea, bizirik.

I) Lurrean zerua nahi izatea.

Asmatu nork eman duen horietako definizio bakoitza:

	BEREZI	MISTER X
A		
B		
C		
D		
E		
F		
G		
H		
I		

- ❖ Alderatu Ikaskidearekin zure erantzunak. Bat zatozte? Zer dela eta aukeratu dituzue batzuk mutilarentzat eta besteak neskarentzat? Zeri erreparatu diozue? Definizioaren egiturekin du zerikusia, edo erabilitako lexiko eta erregistroarekin? Saiatu iritziak binaka bateratu eta laburbiltzen.

Berezik maitasuna definitzen duenean...

Mister X-k ematen dituen maitasunaren definizioak...

- ❖ Aukeratu definizio horien guztien artean gehien gustatu zaizuna. Kopiatu eta marrazki batez apainduta gorde.
- ❖ Orain, zuen txanda da. Maitasuna definitzen saiatu behar duzue. Horretarako aurrekoak errepasatu, bakoitzak bere barnean begiratu, eta aurrera! Idazten duzuenak ez du luzeegia izan behar, baina gogoan izan zein diren definizioen ezaugarriak, eta gai pertsonal bati buruz ariko zaretenez, irudimenari ere atea ireki.

Niretzat maitasuna da...



Kontuan izan testu zatiok aztertuz ikasten ari zareten guztia; izan ere, sekuentzia honen helburu nagusia da bakoitza bere egunerokoa idazten hastea.

4. JARDUERA. Mister X eta Berezi

Zer da, ba, maitasuna? liburuko protagonista diren Garazi eta Mister X ezagutuko ditugu orain. Irakurriko dituzuenak ez dira, ordea, testu autobiografikoak, batak bestearen deskribapena egiten baitu bere egunerokoan. Ez dira deskribapen soilak, konparazioz eta irudi ederrez hornituak baizik, lehenago ere aipatu baitugu literatur testuak direla, azken finean.

❖ Hausnartu eta testuak irakurri aurretik erantzun binaka galdera hauei:

- ✓ Deskribapen subjektiboak ala objektiboak izango direla uste duzu? Zergatik?
- ✓ Zein aditz pertsona erabiliko dute kontakizunean?
- ✓ Eta, zein aditz denbora?

Hona hemen bi testuak. Ohartuko zaretenez, bi parte ditu egunerokoaren orri bakoitzak: bata, prosaz idazten duena, kontakizuna bera; eta bestea, olerki txikitxo batek osatua. Arretaz irakurri, ondoren landuko baititugu!

NOLAKOA DA MISTER X?

Mister X berbatia, umoretsua eta adeitsua da. Hori garrantzitsua da niretzat, nik ere asko gozatzen dudalako kontu-kontari, nahiz eta non eta nola, nahiago izaten dudan entzun, esan baino.

Mister X presaka ibiltzen da sarritan, zeregin asko edo plan piloa balu bezala. Hori garrantzitsua da niretzat, niri ere denbora aprobetxatzea gustatzen zaidalako, nahiz eta, nola eta zergatik, kontenplazioan egotekoa ere banaizen.

Mister X-k dotore idazten du. Ikasgelan xarmatuta geratzen naiz. Batzuetan iruditzen zait haren esaldiak korrante bat direla eta banaramatela, bilin-balaunka goxoan, adarra urak legez; besteetan, oster, haren berbak haziak begitantzen zaizkit, banan-banan sustraitzen nire pentsamenduaren ildoetan, temati eta tente. Musikaria izango ei da, gitarra aldean ibiltzen diren horietakoa. Eta hori ere garrantzitsua da niretzat, ni poeta naizelako.

KAIERDUN EMAKUMEA

Kaierdun emakumea naiz,
badakizu nor:
hondartza gurmatsuan zure inizialak
idatzi nahi lituzkeena,
edo hobeto,
telefono-zenbaki bat zure autoaren kristalean.
Baina hau ez da film frantsesa,
ezta kolonia-iragarki bat ere.

BEREZIA ETA POETA

Berezi ez da neska katxarroa, baina ni ere ez naiz beste mundukoa, ezta fatxada hutsean geratzen diren horietakoa ere, noski, eta ikusten diot, nola esan, xarma xarmaren gainean. Ahotsa, irribarrea, egokera... eta arreta, arreta arretatsua, zer esaten ari zaren, horixe grabatzen beti; horixe batik bat. Eta nola hitz egiten duen. Institutuko olerki-sariketa irabazi badu... Superbizia eta superpoeta, hamar puntuko bihotza duela jokatu nuke. Niri ere gustatzen zait idaztea, nire gauzak, kantuen letrak. Praktika behintzat badaukat, astero ariketa txatxu bat egiten baitugu Hizkuntzako irakaslearekin:eskua sartu poltsa batean, txartel bat atera hitz bat idatzita duena, eta hitz horri buruzko testu bat prestatu hurrengo asterako. Metodo infantil samarra iruditzen zait niri. Aukera ematen digu, dena den, nahi duguna esateko. Gora adierazpen-askatasuna (hemen egunkariak ixten baitituzte begi-kliska batean, giltzarrapoa eta kitto). Ba, bai. Aste honetan *itsasargi* atera zait; Berezi, *non*. Moldatuko da, flipantea baita. Halaxe nabil ni, flipatuta. Bestela, zer dela eta hasi behar nuen nik pentsatzen, zerbait idazten dudan bakoitzean, berari gustatuko zaion, ez zaion?

KALKULUA (Apuntea kantu baterako)

Problema honetan, urratsez urrats aztertu dut ebazpen-prozedura: zure begiraden estatistika, zure bularren geometria, zure bertuteen aritmetika. Hala ere, oraindik ez dut faktore ezezaguna askatu. Zenbat balio dut nik zure ametsen ekuazioan?

- ❖ Jada irakurri dituzue lau testuak. Saia zaitetze orain, banaka, ondorengo taula hau betetzen, egunerokoek izaten dituzten ezaugarri nagusiak berrikusteko.


	BAI	EZ
Kontatzen direnak modu erreal eta objektiboan kontatzen dira		
Goi mailako hizkera darabilte		
Lehen pertsonan kontatuta dago narrazioa		
Batak bestearen alde on eta ez hain onak, biak, deskribatzen ditu		
Lehen aldian garatzen da kontakizuna		

- ❖ Orain, neskok aukeratu Bereziren testua eta mutilok Mister Xrena eta berridatzi, aditzak 3. pertsonan jarrita. Bukatutakoan, binaka, hausnartu eta erantzun galdera hauei:

√ Aditza hirugarren pertsonan jartzerakoan aldaketa gehiago egin behar izan diozue testuari?

√ Zein da zuek idatzitako testua irakurtzean duzuen sententzia? Urruntasuna nabaritzen da? Zergatik?

√ Testu berria, zer da, objektiboagoa ala subjektiboagoa? Eman arrazoiak.



- ❖ *Zer da, ba, maitasuna?* liburuaren azken atalean iristen da benetako unea: Berezik eta Mister X-k lortzen dute elkarrekin bat egitea, nolabait esateko, komunikatzea.

Bakoitzak bere egunerokoan kontatzen du une gogoangarri hori. Jarraian bi testuak dituzue. Arretaz irakurri, ea zer desberdintasun aurkitzen dizkiozuen!

UNEAREN EGIA

Lasai etorri zait goizean, ni ere beraganantz nindoanean juxtu, masailak apur bat gorrituta, hori bai, ez dakit hotzagatik ala neugatik. Postala neraman aldean, lagunena eta fruituena; eskapatoria bat izatearren, badaezpada, egoera aldrebestuz gero. Parean jarri zaidanerako eguraldia aipatu dut, aurrena bururatu zaidana. Dena den, laster hasi da euria. Kasualitatea. Zaparrada mundiala, zoperna jenerala! Zerbait esan dit hirira joateaz, betaurrekoei buruzko ez dakit zer, eta konturatu orduko, bagindoazen euritakoaren azpian. eskerrak gitarrak zorro ona duen, blaitzen ez dena. Mila gauza zetozkidan burura; ez nuen hitz egiteko tenplerik, ordea. Unea sentitzekoa besterik ez. Besotik tenk egin dit, mantsoago ibiltzeko. Trena hartu dugu. sabaian, euria atabal bat bezala, isiltasun eske. Tatxaaan! Orduan utzi egin diot etortzen uneari, gure uneari, uneetako uneari, uneetako bati... “Topatu al zenuen motxilan utzi nizuna?” , galdetu dit bat-batean. Kolpean harrapatu nau galderak. “Zer, hau?”, esan diot, leloarena eginez, zia poltsikotik aterata, eta segituan, “Zergatik ez didazu zeuk gordetzen?” eta eskuan ipini diot. Bero-bero zeukan. Eskutik gogor heldu, eta esan diot xuabe-xuabe belarrira: “Maite zaitut”. Horixe baita kontua, hitz bitan esanda.

Mister X

(76. or)

EGIAREN UNEA

Hotz dago, eta ikastetxe ondoko errekek marmelada grisa dirudi, hain dator ura lodi.

Gaur da eguna.

Ikusi dut Mister X etortzen, gitarra aldean, eta zuzen-zuzen joan natzaio. Ostarte bat argitu da bat-batean negu goizean, eta patioako enbor biluziek eta belar argalak eztiaren kolorea hartu dute.

—Zein goxoa den neguko eguzkia! —esan du, aurpegia altxatuta, eta pentsatu dut nigatik esaten zuela hori, zeharka—. Klasetik piper egiteko gogoia ematen du, ezta?

—bale _bizkor ere bizkor erantzun diot—. Betaurreko berriak behar ditut.

Euria hasi da orduan, ibaika, eta oinez abiatu gara, goardasolpean pega-pega eginda, tren-geltokirantz. Bertako erloju biribilean, hamarrak eta hamar.

Isilik gindoazen. Gauza arraroa, Mister X berbatia, umoretsua eta adeitsua delako.

Treanean jesarri garenean, galdetu dit:

—Gustatu al zitzazun postontzian utzi nizuna?

Bere begiak egia eskatzen ari ziren.

Leihatilaren bestaldean, euria eta euria, uholdea ia.

Eskuetan ipini diot nire karpeta. Esan diot:

—Maite zaitut.

Eta horixe zen benetan esan nahi niona.

Berezi

(79-80. or.)

- ❖ Saia zaitezte taula honetan adierazten direnak egia ala gezurra diren ebazten:

	EGIA	GEZURRA
Unearen egia eta Egiaren una izenburuek gauza bera adierazten dute.		
Berezi da Mister X-rengana hurreratzen dena.		
Berezik eguraldia aipatzen dio mutilari, zer esan ez dakielako.		
Mister X berba eta berba aritu da, isildu gabe.		
Elkarrekin egoteko gogo dutenez, eskolara ez joatea erabakitzen dute		
Aurretiaz elkarri opari bana egin zioten		
Bi hitzetan adierazten diote elkarri sentitzen dutena		

- ❖ Bi testu hauek, ederrak izatez gain esamoldez beterik daude. Binaka, azal du zer esan nahi duten azpian dituzuen horiek. Erabili horietako bakoitza beste esaldi batean.

—Patioko enbor biluziak:

—Euria hasi da, ibaika:

—Bere begiak egia eskatzen ari ziren:

—Ez nuen hitz egiteko tenplerik:

—Eskerrak gitarrak zorro ona duen, blaitzen ez dena:

—Besotik tenk egin dit:

—Sabaian, euria atabal bat bezala, isiltasun eske:

—Orduan, utzi egin diot etortzen uneari, gure uneari, uneetako uneari, uneetako bati...

5. JARDUERA: Pintura eta poesia uztartzen!

Jada badakizue adibidetzat hartu dugun liburua benetan dela berezia. Baina, sorpresak ez dira oraindik bukatu. Egunerokoen ezagutze honetan pauso bat haratago joatea proposatzen dizuegu oraingoa.

Kontua da, *Zer da, ba, maitasuna?* liburuan ikusi dugula protagonistek egunero gertatzen zaizkienaz gain, olerkiak edo poesiak ere idazten dituztela. Baina, ez hori bakarrik!: sarritan, olerki horiek pintore ospetsuren baten pintura-lanekin lotzen dituzte.

- ❖ Pintore horien lanei buruzko zerbait gehiago ikastea proposatzen dizuegu. Horretarako, liburuan agertzen diren batzuk aukeratu ditugu. Arretaz irakurri eta ea gai zareten testuak eta pinturak lotzeko!

A)

BARATZEKO DEIA

Zatoz, baratzean itxaroten dizut.
Izan dezagun arrasti luze bat.
Bada mahaian zer jan, zer edan;
erleak esna hirusta artean;
limoiak eta daliak txabola ondoan;
eta itzala paparrean,
besarkada bat bezala.
Palmondoa eta putzua oasia ditugu;
zuretzako denda bat da nire gorputza.
Zatoz, ortuan nauzu zain.
Oraindik ez dakizu zenbat maite zaitudan.

B)

AMA HONDARTZAN

Ama, behar zaitut hondartzan ikusi lasterka,
magia egiten denborarekin.
Eta ni pijama hutsean zuri so,
olatuen merengea begi-ninietan.

Film hartako oreintxoak nauzu,
zuretzako eguzki-betaurreko bila merkatu
txikian.
Hegazkin batek, ordea, urrun daramatza
evax, belcor eta margaret astor
kargamentuak.

Ama, behar zaitut barreka ikusi hondartzan,
eskua eskuan,
eguerdi gordinean.

C)

GAUA ETA GATZA

Egunen batean esnatuko banintz, kasualitatez,
—kasualitate hutsez diot—,
zure besoen artean,
ez presarik izan, ez begiak ireki.
Emadazu pa masailean,
ez dira-eta urrun izango huntzorria, lore
urrekarak.
Emadazu musu eskuekin,
itsuka.

Garbitzaileen kamioiak eramango du,
benetako zaborrekin nahastuta,
gure gauaren zelofana.

Gatza emango dizut nik gosari,
urre zuria.
Gure bihotz pisuek flota dezaten, arindurik,
ezinaren bainuontzi erabilian.

D)

E)

LAGUNA

Gauero, erdi lo nagoenean,
gura dudan laguna sartzen zait leihotik.
Herriko argien gainean goaz hegan:
zikoina zuri bi gara zeruetan.

Goiz-alban, ortozik eta isilik,
lagunak alde egiten du nire ondotik.

Baina badakit laster itzuliko dela
eta berriz abiatuko garela
hezurrezko ilargiaren magalera.

AMETSETAKO URAK

Ura telefonoan zure ahotsa
Edalontzi bat dago mesillan.
Hari begira hartzen nau loak.
Ohea urak hartzen du.
Kamisoia blai, banoa
itsasargi baten pareraino,
non zu zauden niri email bat idazten.
Subject: "Ura, mesedez".
(Nire ahotsa ba ote da zuretzat ura?)
Eskua luzatu dut;
edalontzia jausi da;
kristalak, zoruan, zure izenaren errepika.
Bustita esnatu naiz.



Pablo Picasso: *Bi emakume hondartzan*



Pablo Picasso: *La Villa Chêne-Roc à Juan-les-Pins*



Frida Kahlo: *Urak eman zidana*



Klimt: *Musua*



Chagall: *Paseoa*

- ❖ Ea pintura lan bakoitza aurretik irakurri dituzuen olerkiekin lotzeko gai zareten!

	A	B	C	D	E
<i>Paseoa</i>					
<i>Musua</i>					
<i>La Villa Chêne-Roc à Juan-les-Pins</i>					
<i>Urak eman zidana</i>					
<i>Bi emakume hondartzan</i>					

- ✓ Erraza izan da? Zerk lagundu dizu gehien? Zeri erreparatu diozu aukeraketa egiteko?
- ✓ Olerki bat aukeratzekotan, zeinekin geratuko zinateke? Eman arrazoiak.
- ✓ Eta pinturetako bat aukeratzekotan, zein hautatuko zenuke? Zerk bultzatu zaitu hori aukeratzeko?
- ✓ Ezagutzen zenuen horietako pintura lanen bat?
- non ✓ Eta, egileak? Izen ezagunak dira? Haien izenak inoiz entzun badituzu, eta noiz?
- ✓ Beraien beste lanen bat ezagutzen duzu.

6. JARDUERA: Nire egunerokoa

- ❖ Bada garaia zeuek ere sortzen has zaitezten! Hasierako jardueran zehaztu genuenez, unitate edo sekuentzia honekin zeuek ere zeuen egunerokoa idazten has zaitezten bideak urratzea zen helburua.

Jada irakurri dituzue zenbait adibide. Dagoeneko badaukazue zeuen egunerokoa idazten hasteko nahikoa prestakuntza.

Beste zenbaitetan bikoteka aritu zarete lanean, baina oraingoan bakarka lan egingo duzue. Izan ere, egunerokoa beste idazki mota batzuk baino kontu pertsonalagoa, subjektiboagoa, intimoagoa dela ikasi dugu hainbat adibide irakurri ostean.

Bakoitzak bere maite ezkutuari buruz idatzitako du balizko bere egunerokoan. Hura nolakoa den, haren zein ezaugarri dituen maiteago... kontatuko du. Norbait ausartzen bada, olerki bat ere idatz diezaioke. Jakina, ez duzue nor den derrigor esan behar! Badakizue, Mister... Miss...

Idazten hasi orduko irakurri arreta handiz ondorengo taulan daukazun aholkuak eta saiatu horiek betetzen.

- Hasteko, argi eduki bakoitza bere buruaz zer kontatzeko gai den. Desberdina izango da besteei irakurtzen uzteko idazten baduzue (nolabait esanda, “argitaratzen” baduzue), edo zuentzat baldin bada soilik.
- Idatzi hasierako zirriborroa. **Kontuan izan** ondokoak:
 - o -Lehen pertsona erabili beharko duzuela. Igorlea lekuko edo protagonista da egunerokoetan.
 - o -Aditzak lehenaldian erabili beharko dituzuela, edo orainaldi burutuan.
 - o -Asmoak, desioak, ametsak... kontatu nahi badituzue, ahalera eta subjuntiboa ere erabili beharko dituzue.
- Lagunarteko hizkera adierazkorra erabili.
- Garaia eta tokia deskribatzeko datuak eman beharko dituzue. Kontuz ibili, gertaerek koherentzia minimoa izan behar baitute, sinesgarriak izan daitezen.
- Informazioa paragrafotan ondo antolatuta eman behar duzue eta ideiek lotura logikoa izan behar dute.
- Berrikusi ortografia, puntuazioa...
- Aurkeztuko duzuen behin betiko testua idatzi



Idatzi ondoren, zuzendu egin beharko duzue zuen testua. Elkarren lanak trukatu eta zuzendu egingo dituzue. Horretarako, lagungarri izango zaizue ondoren duzuen txantiloia.

Hasiera batean testu bakarrarekin aritu zarete. Hala ere, egunerokoak izate berezia du eta komenigarria litzateke gutxienez astebeteko jarduna burutzea, hau da, aste osoan idaztea zerbait, egunero-egunero.

	BAI	EZ	KONPONBIDEA
Testu koherentea da, ondo egituratuta dago.			
Pentsamenduak eta sentimenduak kontatzen ditu eta interpretatu ere bai.			
Era polit eta entretenigarrian kontatzen du			
Hizkerari begira... (lexiko aberatsa, ikasitako esamoldeak)			
Diskurtsoa egoki lotuta: lokailuak, testu-antolatzaileak...			
Testua ondo antolatuta dago paragrafotan			
Gramatikalki zuzena da			
Ortografia eta puntuazio egokiak ditu			
Lexikoa jasoa da?			
Igorlea lekuko edo protagonista da.			
Hartzailearekiko loturarik bilatzen da? Pertsona izenordeak...			
Deskripziorik ageri da?			
Iritzirik ematen da?			

7. JARDUERA. Nire egunerokoa jakinarazten

Gaur egun, *blog*-ak ere puri-purian daude. Ba al dakizue zer diren? Hona hemen Wikipediatik atera dugun informazioa. Helbidea hauxe duzu: www.eu.wikipedia.org

Idatzi dituzuen testuak, egunerokoak, beste ikasle batzuek ere irakur ditzakete, zuek Miren Agur Meaberen *Zer da, ba, maitasuna?* liburuko testuekin egin duzuen bezala. Horretarako, oso baliagarriak dira *blog*-ak.

Blog batean idaztea erabakiz gero, kontatzen duzuen beste jende askok irakur dezake eta hori ere kontuan izan beharko duzue: zer kontatu, nola kontatu... bereziki zaindu beharko baituzue.

Hona hemen beste helbide interesgarri batzuk, *blog*-etan barrena murgil zaitezten, eta haien ezaugarri nagusienak ezagut ditzazuen:

www.ibaizabalbhi.nireblog.com

www.geizabilbao.blog.com.es (irakasle baten egunerokoa)

www.blogari.net Sortu zure bloga di-da batean. Web orri hau zabaltu eta eskuin aldean zerrenda luze-luzea aurkituko duzue. Zuek bezala, hala nahi izan duten guztiek ireki dituzten blog-etarako sarrera zuzena aurkituko duzue.

www.uztarria.com Sarrerak izateaz gain, atari honetan blog-ak sailkatuta agertzen dira.

Baduzue, non begiratu, non kuxkuxeatu!

Eta, bukatu dugu gure sekuentzia didaktikoa!

- ❖ Egindako lana baloratzea da geratzen zaigun bakarra. Saia zaitezte zintzoki erantzuten eta denon artean ondorioak ateratzen.

1. Zein izan dira unitate honetan gehien gustatu zaizkizun atalak? Eta gutxien? Arrazoitu zure erantzuna.

- Eguneroko desberdinen atalen irakurketa
- Maitasunaren inguruko testuak.
- Norbere egunerokoa idaztea.
- Poesiak irakurtzea.
- Poesia eta pintura uztartzea.
- Blog*-ak arakatzea

2. Ba ala dago kenduko zenukeen jarduerarik?
3. Testuen irakurketa zaila iruditu zaizu? Hala bada, zergatik?
4. Lana burutzerakoan, izan duzu behar besteko laguntzarik?
5. Sarritan binaka edo talde txikitik aritu zarete lanean. Nola baloratzen duzu hori?
6. Aipatu unitate didaktiko hau landuta ikasi duzun zerbait.
7. Egunerokoei buruz aurretiaz informaziorik izan baduzu (gaztelaniako klaseetan jaso, esaterako), baliagarria izan zaizu?
8. Nola baloratuko zenuke unitate hau orokorrean?
 - Oso ona
 - Ona
 - Balekoa
 - Aspergarria
 - Besteen antzekoa